

## Greba deialdia

Hezkuntza departamenduak iazko maiatzean curriculumaren zirriborroa aurkeztu zuen. Dokumentuan bertan soin heziketaren orduak, lehen hezkuntzan %40an eta bigarren hezkuntzan %37an, murrizten zituztela egiaztatu genuen.

Hau konpondu nahian beharrezko pausu formal guztiak eman genituen aurrera emendakinak egitearekin batera. Hezkuntza departamenduekin lehen harreman bat izan genuen eta gure proposamena mahai gainean jarri genien baina kasurik ere ez ziguten egin. Hortik aurrera dekretua aprobatu arte (urriaren 16an) denbora irabazi nahian harremanei eta elkarrizketei uko egin zieten.

Gure aldetik sohat (soin heziketaren aldeko taldea) sortu genuen (ikasle, irakasle, guraso, kirolari, mediku, nutrizionistak, e.a) eta hainbat ekintza, kontzentrazio eta soin heziketaren aldeko manifestuaren atxikimendu sinadura bilketari ekin genion, gizartea informatu eta sentsibilizatzeko asmoz. Emaizak hauek dira: 75000 sinadura, goi mailako 200 kirolarien atxikimendua eta beste hainbeste ikastetxeko klaustro, magisteritza eta soin heziketaren zientzien fakultateak, guraso elkarte eta eskola kontseiluaren atxikimendua eta babesak.

Eusko legebiltzarreko hezkuntza eta kultura kontseiluaren aurrean ere gure argudioak eman genituen (abenduarien 5ean). Talde politiko guztiak bat etorri ziren soin heziketaren garrantzia azpimarratzerakoan.

Ez ginen soldaten igoera eskatzera joan nahiz eta gure arazoa aldi berean laborala izan ere, hezkuntzaren eta umeen garapen osoaren kritiketan zentratu ginen. Umeek eta gazteek jasango dituztelako erabaki honek ekarriko dituen ondorio ezkorak. Aldi berean hezkuntza departamenduaren jarrera itxia (elkarrizketei eta negoziazioei uko egitea) salatzeak aukera izan genuen. Kritika honi esker urtarrilaren 14an hezkuntzako agintariekin bildu ginen baina dekretua inolaz ere ez dutela aldatuko entzuteko. Ez direla inolako negoziazioetan murgilduko eta azken finean alferrik gabiltzala esateko. Eusko jaurlaritzatik hezkuntzan osasun arloan bezala erabakiak, negoziatioetatik ihes eginez, dekretuz hartzeko joera dator nahiz eta sindikatu guztiak aurka izan, elkarrizketa eta negoziatioak ez du lekurik. Beraiek soilik espainiako estatuarekin afera dutenean, indar osaketan ahulagoak direnean erabili edo aldarrikatuko dute bide hau.

**Egoera honen aurrean ate guztiak itxi dizkiguten ondoren soin heziketaren irakasleentzako greba deialdia egitea erabaki dugu hezkuntza publikoan eta pribatuan otsailaren 11rako.** Hezkuntzako agintarien jarrera itxia salatzeak aukera izan genuen aldarrikapenei bultzada emateko. Honekin batera gure desadostasuna erakusteko eta etorkizunean ikasleentzat zer datorren agerian uzteko urtarrilaren 28tik otsailaren 11 arte sh-ko klaseak bertan behera utziko ditugu hezkuntza departamenduak pisako interpretazioak egin ondoren indartu nahi dituen arlo "nagusiagoak" lantzeko (zientziak eta hizkuntzak).

Diseinatu duten curriculum dokumentu hutsa besterik ez da izango, murrizketekin inolaz ere bertan idatzitako konpetentziak eta gaitasunak lortu gabe geratuko direlako. Ikasleen garapena hanka motz geratuko litzateke eta hau hurrengo urteetan zehar erraz ikusteko aukera izango genuke.

Orain dela 13 urte hezkuntzako departamendu berak dekretua atera ondoren hausnarketa burutu eta dekretua aldatzeko eta soin heziketa indartzeko erabakia hartu zuen. Curriculumean ezarri zituzten helburuak eta gaitasunak lortu ezinak zirelako saio bakar batekin.

Gaur egun curriculum maila teorikoan hobetu den honetan murrizketarekin nola lortuko ditugu hor idatzitako konpetentziak? Argi eta garbi esaten dugu murrizketarekin lorpen horiek lortu ezinak direla.

Adibide garbia ipiniko dugu mahai gainean soin heziketaren arloak hezkuntzako departamendutik jasotzen duen trataera eta jarraipenaz ohartzeko: sohatek hiru

lurraldean artean ehun ikastetxeetako datuak jaso ditu gaur egungo egoeran soin heziketak eskoletan duen ordutegia jakiteko murrizketa ezarri aurretik. Eta harritzekoa bada ere, gaur egun oso ikastetxe gutxik betetzen dute legez agertzen den ordu kopuru gutxiengoa. **Legeak ezartzen ditu 150 minutu lehen hezkuntzan eta 120 bigarren hezkuntzan** eta hauek dira emaitzak batezbestekoa egin eta gero. Interpretazioa begi bistakoa da:

| Araban             | Lh1           | Lh2        | Lh3          | Lh4           | Lh5           | Lh6           | Dbh1          | Dbh2          | Dbh3          | Dbh4          |
|--------------------|---------------|------------|--------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|---------------|
| Betetzen direnak   | 125'29        | 126'47     | 140'88       | 134'70        | 140'88        | 135'29        | 118'33        | 118'33        | 118'33        | 118'33        |
| Bizkaia            | Lh1           | Lh2        | Lh3          | Lh4           | Lh5           | Lh6           | Dbh1          | Dbh2          | Dbh3          | Dbh4          |
| Betetzen direnak   | 125'33        | 1275       | 139'92       | 134'86        | 135'26        | 135'26        | 113'46        | 116'16        | 111'15        | 115           |
| Gipuzkoa           | Lh1           | Lh2        | Lh3          | Lh4           | Lh5           | Lh6           | Dbh1          | Dbh2          | Dbh3          | Dbh4          |
| Betetzen direnak   | 112'55        | 111'96     | 126'78       | 127'67        | 128'75        | 129'09        | 115'25        | 111'75        | 114'25        | 112'75        |
| Eaen batazbestekoa | <b>119,05</b> | <b>120</b> | <b>129,4</b> | <b>131,18</b> | <b>133,36</b> | <b>132,57</b> | <b>115,34</b> | <b>114,54</b> | <b>114,20</b> | <b>114,65</b> |

Otsailaren 11an eusko jaurlaritzan, lakuan, gizarteak eman digun babes (75000 sinadura) entregatuko ditugu prentsurrekoa egitearekin batera. Jarraian *legebiltzarreko hezkuntza eta kultura kontseiluan* arazoari irtenbide egokia emateko aukera egongo da, hemen besteen artean s.h.ren ordu murrizketaren gaia eta soin heziketaren etorkizuna bozkatu eta erabakiko baita.

Sohati ibilbide hau egin eta gero ez zaio beste aukerarik edo irtenbiderik geratzen, eta hezkuntzako bost sindikatuko (ccoo, ela, lab, steeeilas, ugt) babes eta laguntzarekin gorputz heziketako irakasle guztiei legebiltzarreko eztabaida eta bozketa egunean greba deialdia luzatzen die.

### **Sohat**

Soin heziketaren aldeko taldea

Ela, Lab, Stee-Eilas, Ugt sindikatuak